


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2015eko otsailean aurreko hilaren aldean

2014ko otsailaren aldean %1,0 gutxitu ziren

2015eko otsailean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen aurreko hilaren aldean eta urte arteko tasan %1,0 EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,4 gutxitu dira.

Otsailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,5eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, Obra Zibilarenean %0,2ko gehikuntza. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran zeinu bera dugu. Etxegintzaren lehengaien kostuak %0,9 jaitsi ziren, Obra zibilarenak %3,5.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2015eko otsaila 2014koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: *Zurgintza* (%1,6), *Material elektrikoa* (%1,0), *Energia elektrikoa eta gasa* (%0,8). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Petrolio-fintzea* (%-22,6), *Industria kimikoa* (%-2,8), *Ez-metalezko mineralak* (%-2,0).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO OTSAILA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	101,5	-0,3	-1,0	-0,1
Eraikinak	101,5	-0,4	-0,7	-0,1
Obra zibila	101,0	0,1	-2,7	-0,1
LEHENGAI	100,3	-0,4	-1,3	-0,1
Eraikinak	100,4	-0,5	-0,9	-0,1
Obra zibila	99,7	0,2	-3,5	-0,2
LAN-ESKUA	105,4	0,0	0,0	0,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)